

arroz-esnea

Osagai nagusiak: arroza (80 g.)
esnea (1 L.)

Gehigarriak: azukrea
bainila leka edo kanela txotxa
limoi edo laranja azala

Bi osagai nagusiak su eztitan, etengabeko giran, denbora luzean. Gehigarriak aukeran, nork zer eta zenbat nahi duen; gozoa, berriz, ezinbestekoa. Gero eta beroago, gero eta nahasiago... irakin arte.

Tradizio handiko errezeta da. Oinarritzkoa dirudien arren, ez da beti ondo ateratzen; arreta eta mimo handia eskatzen ditu. Suari neurria hartzea omen da sekretua, beti ezti, lehortu ez dadin. Bi osagaiek bat egin behar dute, baina bukaeran arrozak arroz behar du, eta esneak esne. Edozein jatorduri laguntzeko ezin aproposagoa.

Irene Gil Legarra